

# Arrazakeriaren aurkako tresnak eskubide kulturalen erabileran



# “Gustatuko litzaiguke beste kolonbiar batzuekin bildu ahal izatea, abenduko mini-jai bat egitea, baina baita hemen integratzen saiatzea ere”

Laura, José Luis eta haren 8 urteko seme Luis José, 2024ko apirilean Euskadira iritsi zen familia kolonbiarra da, eta, haien migrazio-esperientzia nolabait planifikatuta izan bazen ere, haien historiak agerian uzten du migrazioaren ekintzak berak hasierako aurreikuspen oro gainditzen duten eraldaketa pertsonal eta kolektibo batzuk onartzea dakarrela. “Ibilbide moduko bat sortu genuen, ahalik eta era kontrolatuenean migratu ahal izateko plan espezifiko bat”, azaldu dute.

Laura odontologoa da ofizioz eta José Luis erizaina da. Horri esker, ikasketa arrazoiak direla eta emigratu ahal izan zuten, eta, horregatik, hain zuzen, ikasle-bisa dute. Familia askok bezala, helburua semearen bizi-kalitatea hobetzea da. Iritsi zirenetik, diskriminazioa jasan dute oinarritzko zerbitzuak (osasuna edo etxebizitza) eskuratzeko, Europara migratutako pertsonetako estereotipoak direla medio. Era berean, beren lan ikasketak aitortuko dizkien lan duina lortzeko oztopoei aurre egin behar izan diete; izan ere, José Luisen homologazioa oraindik prozesuan dago, eta Laurak, bere lanbideari dagokionez, beste bi urtez ikasi behar ditu Euskadiko unibertsitate batean, bere titulua balioztatu ahal izateko. Hala ere, familia hau, migratutako pertsona gehienak bezalaxe, zerbitzu eta zaintza enpleguetan ari da lanean. Gainera, Laurak, Jose Luisek eta bere semeak jatorrizko kultura bateko kide izatearen dualtasuna bizi dute, eta, aldi berean, errealitate berri baten parte baitira. Jose Luisek argi eta garbi adierazten du: **“kultura hori norberaren baitan dago, ez dio norberaren parte izateari uzten, baina oso desberdina den beste kultura batekin talka egiten du”**. Aitortza horrek azpimarratzen du kultura ez dela alde batera uzten migratzen denean; aitzitik, mantendu egiten da,

egokitu egiten da, eta elkarrekin bizi eta etsi egiten diren praktikak, hizkuntzak eta esanahiak artikulatzen dira.

Egokitze prozesu horretan, eskubide kulturalak funtsezko eginkizuna dute. Eskubide horiek, bizitza kulturalan askatasunez parte hartzeko eta tradizioei eusteko aukera gisa ulertuta, oztopo linguistiko, ekonomiko edo sozialek baldintzatzen dituzte maiz. Era berean, elikadura edo musika bezalako eguneroko alderdiak identitate ibilgailu eta erresistentzia kulturalako estrategia bihurtzen dira. **“Gustatuko litzaiguke beste kolonbiar batzuekin bildu ahal izatea, abenduko mini-jai bat egitea, baina baita hemen integratzen saiatzea ere”**, adierazi du Laurak. Oreka bilatze horretan, agerian jartzen da, eskubide kulturalak baliatzeko, harrera lekura integratzearekin batera, bizikidetzeta eta elkarrekiko errekonozimendu modu berriak eraiki behar direla, norberarena gordetzea ahalbidetuz.

**“Berezia iruditzen zaigu ordu bietatik laurak bitarte, mundu guztiak bere lo-kuluxkan egitea; denbora guztian lan egin behar den herrialde batetik gatoz, eta hemen hori bizi-kalitatea da”**, dio Jose Luisek. Horrek aukera ematen digu aisialdia eskubide kulturalen funtsezko zati gisa ulertzeko modua azaltzeko. Familia honentzat, aisialdia “norberak gustuko duen zerbait egiteko unea da, lasaitasuna ematen diona edo, besterik gabe, ezer ez egitea”. Egokitze prozesuan, euskal jendarteak atsedinari eta bizikalitateari bestelako balioa ematen diola ohartu dira. Behaketa hori ez da hutsalagoa; denboraren konfigurazio berri bat adierazten du, lanaren erritmo bizkorretik eguneroko ongizatearen balioa aitortzea ahalbidetzen duena.

Familia kolonbiar honen lekukotza, eztabaida saioetan eta arrazakeriaren aurkako cumbia tailerrean parte hartu zuten 77 pertsona baino gehiagoren hausnarketei gehitu behar zaio. Proposamen ludiko-festiboa da nagusiki, eta ikuspegi dekolonial batetik, arrazakeria, matxismoa eta klasismoa problematizatuko dituzten feminismoak sustatzeko teoria-uneak konbinatzen ditu, horien ondorioak eta sistema honetako haustura arrakala sortzeko aukera baliatuz.

Jarduera horiek hiru lurraldeetan – Araba, Gipuzkoa eta Bizkaian – egin ziren, eta, horri esker, elkarren arteko esperientziak elkarrizketan jarri ahal izan ziren, desberdintasunak aurkituz, baina baita

antzekotasunak ere, errefuxiatuen eta migratuen kultura-eskubideez gozatzeari eta eskubide horiek eskuratzeari buruzko funtsezko ideiak kokatzeko aukera ematen digutenak. Izan ere, horietako asko arrazistak baitira, eta kultur politika eta praktikak giza eskubideen ikuspegitik birpentsatzeko gonbita egiten baitigute. Garrantzitsua da aitortzea, gainera, arrazakeria ez dela pertsona errefuxiatu eta migratuetara bakarrik mugatzen, baizik eta bertakoengan ere eragiten duela, harreman sozialak eta pertzepzio kulturalak baldintzatuz. Era berean, azpimarratu nahi dugu migrazioa ez dela soilik banakako egokitzapen-prozesu gisa ulertu behar, baizik eta jendarte anitzago, inklusiboago eta enpatikoagoak eraikitzeke aukera gisa.

Eztabaida-tailer/saio hauetan funtsezko galderak landu ditugu, elkarrizketa edo gogoeta hiru multzotan sailkatuz: 1. Kultura, kultura-eskubideak, aisia eta denbora libre nola ulertzen ditugun. 2. Zein diren eskubide kultural horiek (lekuak, jarduerak, etab.) eskuratzeke oztupoak, eta 3. Haietarako sarbidea bermatzeko estrategia individual eta kolektiboak. Horri buruz hitz egitea, zalantzarik gabe, pertsonen zuntz sentikorrek mugitzea da, beren migrazio istorioekin, antzeko esperientziak biltzen dituzten banakako istorioekin, espazio horiek parte hartzeke metodologiak ez ezik, ikuspegi pedagogikotik eta euste-ikuspegitik zaintzaileak izateke premia nabarmenduz.

Kontakizunen lotura horrek agerian uzten du **oztopoen** sistematikotasuna; esate baterako, nahiz eta arrazoiak, formak eta jatorrizko herrialdeak desberdinak izan, estereotipoek, diskriminazioak eta sartzeko trabek bat egiten dute. Nabarmendu nahi dugu Estatuan errefuxiatuen eta migratuen eskubideak baliatzeke oztopo nagusia Atzeritartasun Legea dela. Lege horrek ikuspegi diskriminatzailea finkatzen du, eta migratzaileen bizitzake arlo guztiei eragiten die, baita eskubide kulturalak gozatzeke eskubideari ere, migratzaileen estereotipo negatiboak eta ikuspegi utilitarista indartuz. Gainera, saioetan ondorengo oztupoak identifikatu ziren:

- Hizkuntza-eremuan: egoera horrek kultura eta hezkuntza politikak tartekatzen ditu testuinguru eleanitzetan, non hizkuntza koofizial baten babesa etorkinen inklusio eta ongizatearekin orekatu behar den.
- Baldintza ekonomikoak: behar adina diru ez izatea, hori migratutake pertsonen lan-prekarizazioarekin lotuta dago. hori da lanen lerro baxuena eta erregularizazioarekin.

- Baldintza emozionalak: migrazio-doluren kudeaketan laguntzarik ez izatea eta harrera-lekuko kide ez izatearen errealitatea. Errua sentitzea aisialdiaz gozatzeagatik, kulturalki, adierazten duten bezala, pertsona migratzaileak *lan egitera ohituta daudelako*, “asko kostatzen zaigu eta autokritikara **garamatza: ez dut ezer egiten niregatik, alfer nago**”.
- Denbora liberrik ez izatea: lan-ordutegi gainkargatuak eta migrazio-prozesutik eratorritako bizi-izapideen kudeaketak eskatzen duen denbora, Atzerriartasun Departamentuaren matazari eta beste leku bateko bizitzaren hasierari lotuta, hala nola osasunari, hezkuntzari eta abarri lotuta.

Koadernotxo honek, beraz, errefuxiatuen eta pertsona migratuen hausnarketan ibilbide bat proposatzen du. Laura eta José Luisen kasuan bezalaxe, kulturalki anitzak diren jendarteak egunerokotasunean eraikitzen direla erakusten digute: eguneroko keinuetan, praktika partekatuetan eta parte sentitzeko leku baten etengabeko bilaketan. Eskubide kulturaletarako sarbidea ulertzea eta bermatzea, azken batean, ekitatearekiko, aniztasunarekiko eta giza duintasunarekiko konpromisoa da.

## Aurrekariak

2024an, aisialdirako gunez gozatzeko eta eskubide kulturalak baliatzeko garaian emakume errefuxiatuek eta migratzaileek dituzten egoeretan sakondu nahi izan genuen. Hiru euskal probintzietan egindako hiru topaketa eta entzute espaziotan, «IAGORATORIOS» izenekoetan –agora eta laborategi hitzen nahasketa–, errefuxiatuek eta migratuek subjektu politiko gisa erabili zuten beren ahotsa, beste batzuek diseinatutako politiken edo ekintzen subjektu gisa duten rol pasiboari kontra eginez. Migrazio-prozesu desberdinak zituzten 17 emakume migratuek eta errefuxiatuek, honako gai hauei buruz eztabaidatu zuten: zein diren aisialdian eta denbora librean gehien gozaten dituzten jarduerak, jarduera horiek (publikoak edo pribatuak) zer espaziotan garatu ziren, zer sozializazio eta aisialdi esperientzia partekatzen dituzten euskal herritarrekin, eta nola gozaten duten kultura edo nola parte hartzen duten kultur sorkuntzako espazioetan.

**Gai horietatik abiatuta, kultura eta aisialdia eskubide gisa ulertuta eztabaidatzen ditugu, baina baita pribilegio gisa ere. Horrez gain, gure herri eta hirietan aisialdiko jardueretan parte hartzeko**

dituzten tresnak edo aurkitzen dituzten oztopoak jorratzen ditugu, bai eta protagonista izango diren kultur proiektuak bultzatzeko aukerarik eza ere, eta ez tokenismoa esaten zaion horretan inklusio-itxura emateko.

Metatzen zituzten esperientziak eta bizipenak, pertsonalak eta bakarrak izan arren, antzekotasun jakin batzuk zituzten edo zeharkako testuinguru faktoreek zeharkatzen zituzten. Faktore horietan kolektibotzat hartzen ziren, eta diskriminazio zuzenak eta zeharkakoak identifikatzen zituzten, hitz egiten duten genero-identitatearen eta Euskadin bizi duten bizi-proiektua baldintzatzen duen migrazio esperientziaren ondorioz bizi izan dituztenak.

Emakume migratuekin eta errefuxiatuekin beraiekin ikertzea beharrezkoa zen, baina prozesuan zehar konturatu ginen esperientzia eta bizipen horien eragina beren ardurapean dituzten adingabeengana ere hedatzen dela: galdetu beharra zegoen, adibidez, euren seme-alabak eskolatuta egotekotan, zenbateraino zuten kultur adierazpen edo aisialdi espazio jakin batzuetarako sarbidea. Hari horretatik tiraka, zalantzak sortu zitzaizkigun familian migratzeak edo, aitzitik, bakarrik egiteak eskubide kulturalen egikaritzan desberdintasunik eragin ote zitzakeen, eta haratago begiraturaz gero, zein ziren gizonen bizipenak?

Argi dago “Kulturalki anitzak diren emakumeak aisialdian eta eskubide kulturalen egikaritzan bazterketaren aurkako tresnak” izeneko koadernoan azaldutako oztopoek ez dutela modu isolatuan eragiten, baizik eta gurutzatu egiten direla, generoarekin, arrazakeriarekin eta klasismoarekin lotutako diskriminazioak (zuzenak eta zeharkakoak) sortuz, eta horiek beste aldagai batzuekin lotzen dira, hala nola adinarekin edo hizkuntzarekin. Hala, kultur eskubideetan arreta jartzeko premian, giza eskubide gisa, eta eskubide horiek baliatzeak (edo ez erabiltzeak) errefuxiatuei eta migratuei nola eragiten dien sakontzen jarraitzeko beharra zegoela uste genuen.

### Testuinguru eta marko legala

Eskubide kulturalen lege-esparrua, bereziki garrantzitsua errefuxiatu, migratu eta kulturalki anitzak diren pertsonentzat, oinarritzeko giza eskubideetan oinarritzen da. **Eskubide Kulturaleri buruzko Friburgoko Adierazpena** funtsezkoa da eskema horretan,

Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren, NBEren nazioarteko itunen eta UNESCOren kultura-aniztasunari buruzko Adierazpen Unibertsalaren printzipioak finkatzen baititu. Eskubide horiek pertsona orori, era indibidualean zein kolektiboan, **jendartearen kultura-bizitzan sartzeko eta bertan parte hartzeko** gaitasuna bermatzen dio, bai eta **beren kultura-esparruak mantendu eta sustatu ere**.

Friburgoko Adierazpenak hainbat eskubide zehazten ditu, hala nola nortasun eta ondare kulturala, nahitaezko asimilaziorik gabeko komunitate kulturala aukeratzeko askatasuna, bizitza kulturalerako sarbidea eta parte-hartzea (aukerako hizkuntzan adierazteko askatasuna eta praktika kulturalak gauzatzea barne), hezkuntzarako eskubidea, informazio aske eta pluralistarako eskubidea, eta lankidetzak kulturalerako eskubidea. Gainera, kultura-eragileei (publikoak, pribatuak eta zibilak) betebeharrak ezartzen dizkie, eskubide horien errespetua ziurta dezaten, bereziki desabantaila-egoeran dauden edo gutxiengo talde bateko kide diren pertsonentzat.

Esparru hori osatuz, **Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Itunaren (EESKNI) 15. Artikuluak betebeharrak juridikoki lotesleak** ezartzen ditu kide diren Estatuentzat, pertsona orok bizitza kulturean parte hartzeko duen eskubidea aitortuz. Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Batzordeak argitu duenez, eskubide horrek elementu kolektibo bat biltzen du, eta pertsona bakoitzak jarduteko, bere nortasuna aukeratzeko, komunitateekin identifikatzeko edo ez identifikatzeko eta bere hizkuntzan hitz egiteko duen askatasuna biltzen du. Itunak ez die Estatuak soilik eskatzen eskubide horiek urratzeari uko egin diezaioten, baizik eta **neurri zehatzak, legezkoak eta bestelakoak hartzer**a ere behartzen ditu, pertsona guztiei, migratzaileei barne, eskubide hori erabat egikaritzea ziurtatzeko.

Azkenik, **Nazio Batuen kultura-eskubideen arloko Errelatore Berezi Alexandra Xanthakiren 2023ko txostenak** azpimarratzen du ezinbestekoa dela **funtsezko berdintasuna bermatzea pertsona migratzaileen kultur eskubideen babesean**, eta artista migratzaileek dituzten oztopoei heltzen die. Txosten horrek nabarmentzen duenez, nahiz eta migratzaileen premia besterik ezin diren eskubide batzuk lehenetsi diren, haien kultur eskubideak **ezin dira** beste premia batzuekiko **bereizi**, eta eskubide horiek galtzeak

**nortasun krisi sakona** eragin dezake, haien familia ingurune kulturalarekiko loturaren galera dela eta.

Migrazioak ongizateari eta kultura praktika baliotsuei eusteko gaitasunari eragiten dieten lekuak, komunitateak eta baliabideak galtzea ere badakarrela adierazi du. Erronkak erronka, migrazioak harrera-gizarteen kultur dinamikan dituen ondorio positiboak azpimarratu ditu errelatoreak, esanahien eta kultur arauen birnegoziazioa eta kulturen bilakaera sustatuz erreferentziak batuz.

### **Diskriminazioaren interseksionalitatea**

Prozesu horretan, eskubide kulturalak gauzatzeko oztopoak identifikatu genituen, hala nola oztopo administratibo eta burokratikoak, **informazio eta errekonozimendu falta, aurreiritzi iraunkorren ondoriozko diskriminazioa, edota arrazakeria estrukturala zein sinbolikoa, besteak beste. Horiei guztiei buruz eztabaidatu zen eztabaida-saioetan, eta diskriminazioaren egiturazko elementuak plazaratu ziren. Elementu horiek ez dira beti ikusarazten, eta ez dute zentraltasunik pertsona migratuak eta errefuxiatuak hartzeko programen eta politiken agendan.**

Jarraian, hiru lurraldeetan errefuxiatuekin eta migratuekin egindako partaidetzazko ikerketa-tailerretan parte hartu duten pertsonen hausnarketak partekatuko ditugu.

### **Haur eta nerabe errefuxiatu, migratu eta arrazializatuak**

Pertsona migrante eta errefuxiatuak, bereziki arrazializatuak, herritarrek parte hartzeko eta erabakiak hartzeko eremuen ertzetan daude. Esperientzia zehatzak ezagutzeko asmoz, Barakaldon 12 eta 16 urte bitarteko 6 neraberekin hitz egin dugu. Izan ere, nerabe horiek hainbat zailtasun antzeman zituzten beren eskubide kulturalak gauzatzeko garaian, batez ere aisialdiari, kirolari eta aisialdirako guneetara sartzeari dagokienez. Zailtasun horien artean ondorengoak identifikatu ziren:

- **Denbora librerik eza:** nerabeek aisialdiaz ez gozatzeko aipatzen duten arrazoi nagusia da, ikasketa karga dela eta. Horietako batek, adibidez, goizeko 8:30ean klasera sartzen dela eta 16:30ak arte irteten ez dela adierazi zuen, eta etxera eramaten diren etxeko lanen kopuruak (hizkuntza, matematika eta

euskara) denbora librea ere murrizten duela azpimarratu zuen. Gainera, gehienek esaten zuten **eskolaz kanpoko jardueretara** joaten direla, eta, denbora ere kontsumitzen duten arren, horietako batzuk motibazioz egiten dituztela.

- **Kostu ekonomikoa:** dirua funtsezko faktorea da aisia eta kultur espazioetan parte hartu ahal izateko. Behar duten dirua lortzeko, nerabeak, oro har, **gurasoen eta tutoreen menpe** daude. Parte-hartzaileetako batek zinemara joatea gustatuko litzaiokeela esan zuen, baina **“garestia da”**. Garraiorako eta aisialdi guneetara joateko beharrezkoak diren bestelako erosketa batzuetarako, nerabeak gurasoen menpe daude. Saioan parte hartu zutenen artean, bik bakarrik zuten asteroko paga edo ordainsaria.
- **Karnet edo bazkidetza eza:** kiroldegietarako edo liburutegietarako karneta ez edukitzeak mugatu egiten du instalazio horietarako sarbidea. Adibidez, aipatu zen, igerilekuari dagokionez, udan ezin direla egun asko joan, ez dutelako paserik. Bero handia egiten duenean eguneko sarrera ordaindu beharra dute, ez baitira kiroldegiko bazkide. Hondartzara joatea ez da aukera gisa agertu ere egiten, nahiz eta Bizkaiko kostaldean bizi diren partehartzaile batzuk, 10 bat kilometrora eta garraio publikoa egon arren (autobusa, metroa).
- **Espazio jakin batzuetarako sarbide mugatua edo nulua:**
  - Ezin dira aisialdirako erreferentziarako leku batzuetara iritsi adin kontuenagatik edo kokapenagatik.
  - Normalean erabiltzen duten futbol-zelaia **“beti itxita”** dagoela aipatu dute, eta ez dute irekitzen jendeak askatasunez joka dezan.
  - Esaterako, **Guggenheim** jendeak gozatzeko leku gisa identifikatzen dute, baina haiek ez dira inoiz sartu.
  - Kiroldegi batzuk urruti geratzen zaizkie, eta horrek esan nahi du **“beste espazio batzuk”** bilatu behar dituztela euren ohiko ingurunetik kanpo. Leku batera **“nola iritsi”** ez jakitea izan zen aisialdiaz gozatzea eragozten duen hirugarren egoera ohikoena.
  - Kontzertu aretoetara eta diskoteketara joateko desira adierazi zuten, baina ez dakit sartzen utziko ote dieten (adina, prezioa, distantzia).
  - Eskola testuinguruan egin ohi diren txangoak ere ez dira ohiko aukera bat gogoeta-taldeko partaideentzat, kostua dela eta.

Save the Children-en 'Zenbat kostatzen den haurrak heztea Euskadin 2024' ('El coste de la crianza en 2024 en Euskadi') txostenak haur bat hazteak dakartzan gastuen ikuspegi zehatza ematen du, inflazioak familietan duen eragina nabarmenduz eta seme-alaba bakoitzeko hileko batez besteko kostua 866 eurora igo du. Balio horrek **%13ko igoera** adierazten du 2022arekiko (orduan 769€ ziren) eta **%34koa** 2018tik (orduan 645€ ziren). Euskadiko **familien %14k (29.307) ezin diote gastu honi aurre egin** diru-sarrerara guztiak erabilita ere, eta **%42k (89.675) zailtasun handiak dituzte**, eskura duten errentaren erdia baino gehiago gastu horietara bideratzen dutelako. Nerabearoa (13 urtetik 17 urtera) da hazkuntza ikuspegitik etaparik garestiena, eta **hilean 925 euroko** balio maximora iristen da. **Adin-talde horren kostua ia %20 igo da 2022tik.**

Txostenak azpimarratzen du hazkuntzaren kostua geroz eta erronka ekonomiko handiagoa dela Euskadiko familientzat, bereziki kalteberatasun egoeran dauden familientzat, eta politika publikoak errealitate horietara egokitu behar direla, nerabeen premiei arreta berezia eskainiz, hazkuntza garestiena den adin-tartean baitaude. Etapa horretan, **ohiz kanpoko gastuek gora egiten dute**, eta gastuaren lehen postua hartzen dute etxebizitzaren kostuarekin batera, **hazkuntzaren kostu osoaren % 17 izanik**. Aparteko gastuetan asteko paga, txangoak, urtebetetzeak eta bestelako ustekabeak sartzen dira. Txostenaren arabera, **nerabearoan premia ekonomiko handiagoak adin horietan hazkuntza babesteko politiken fokalizazio txikiagoarekin talka egiten du.**

Lehen haurtzararako laguntzak daude, kulturaren arloan ardatzen ez direnak, baina berbiderra daitezkeenak nerabearoko garaiari aurre egiteko zabalduz gero. Esaterako, **Seme-alaben Hazkuntzarako Hileko Laguntzak**, gaur egun, hilean 200€ arteko dirulaguntza ematen du haurrak 3 urte bete arte, baina 7 urtera arte luza daitezkeenak 2028rako, iragarritako aurrerapenen arabera. Save the Children bezalako entitateek azaldu dutenez, **laguntza horiek ez diote kostu handienak dakartzan adin tarteari (7 eta 17 urte bitartekoak) eragiten** eta 17 urtera arteko hazkuntzarako prestazio unibertsala edo ia unibertsala eskatzen dute lehen aipatutako gastu hori arintzeko.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzaren Gazteentzako Kultura Bona, 18 urte betetzen dituzten gazteentzako 400 euroko laguntza,

kulturarako sarbidea sustatzeko proposatu da, baina urte horretan hamazortzi urte betetzen dituzten horientzako bakarrik. Bonu hau hiru kategoriatan sailkatzen da: kultura-produktu fisikoak (liburuak, diskoak, besteak beste), produktu digitalak (harpidetzak, online musika, etab.) eta zuzeneko arteak, kultura-ondarea eta ikus-entzunezko arteak (antzerkia, zinema, museoak). Bonu hori zerbait puntuala da, eta kanpoan uzten ditu, eztabaida-saioan adierazi zuten bezala, kultura-eremuez gozatu nahi duten baina erosteko ahalmenik ez duten nerabeak.

## Familia errefuxiatu eta migratuak

Bizkaian eta Gipuzkoan, guztira, bost familiak parte hartu zuten saioetan; horietako bat 45 eta 50 urte bitarteko gizon batek eta emakume batek osatzen zuten. Ardurapean adingabeak dituzten hiru familia amabakar (horietako bi seme-alaba nerabeekin eta bat alaba gazte batekin) eta amak, aitak eta seme adingabe batek osatutako familia bat.

Eskubide kulturalen gozatzeko oztopoak identifikatzeaz gain, guraso bakarreko familietako amek beren seme-alaben prozesuaren laguntzan bizi duten karga emozionala agerian geratzen da. Halaber, adierazi dute, Euskadin laguntza asko dauden arren, laguntza horiek jasotzeko egoera erregularrean egon beharra dagoela. Eztabaida guneetan egoera administratibo irregularrean edo erregularizazio prozesuetan dauden familiek hartu dute parte, normalean oso luzeak eta nekagarriak direnak. Gurasoen administrazio egoera horrek zuzenean eragiten du beren ardurapean dauden haurren eta nerabeen bizitzan eta euren eskubideengan, haien kultura-eskubideak barne. Euren erregularizazioa gurasoen araberakoa da, prozesu luze eta akigarria, haurraren interes gorenaren printzipioa urratzen duena eta kultura, hezkuntza eta gizarte eremuetan parte hartzea mugatzen duen oztopo bat sortzen duena. Errealitate horrek agerian uzten du migrazio-politikak berrikusi beharra dagoela, haurrak beren garapena eta ongizatea baldintzatzen duten izapide burokratikoetan harrapatuta geratuko ez direla bermatzeko.

Gainera, ondorengo oztopoak identifikatu ziren:

- **Ekonomikoak:** familia-jardueretarako, bidaietarako edo aisialdiko jardueretarako, hala nola zinemarako, jolas-parkeetarako edo bidaietarako mugak; oro har, familiek oinarrizko gastuak

kubritzeko erabiltzen dute dirua. Hala ere, familia gehienek doako eta gertuko jarduerak egitea erabakitzen dute, hala nola auzoko parkera joatea. “Ez dugu mugitzeko modurik... izozki bat gastua da.”

- Hizkuntzari lotutakoak, haurrei gehiago eragiten diena: familiako kide guztiek harekin zailtasunak adierazten badituzte ere, askoz garrantzi handiagoa du hurrek eta gazteek euskarazko hezkuntza-sisteman duten esperientziak. “Gure semeak 8 urte ditu... dena euskaraz egiten diote. Beste ume batek itzul diezaion behar du. “
- Denbora partekatzeke ezintasun: ordutegi bateraezinak edo luzeak dituzten gurasoak, askotan aldi berean bi lanpostu dituztenak diru-sarrera gehixeago izateko. “Ez daukat denbora librerik, ordu guztietan egiten dut lan.”, partekatzen dute “Kosta egiten zaigu elkarrekin gozatzeko denbora ateratzea. “
- Familia edo babes sare gutxi: imajinarioetan migrazio-prozesuetan familian egotea lagungarria dela uste bada ere, zaintzak pertsona bakar batek egin ohi ditu, jatorrizko herrialdeetan ez bezala, bere familia-nukleoko kide gehiago ez duelako. Gehien aipatzen den estrategietako bat komunitate migratzailearen beraren laguntza eta babesa da. “Hemen dauden pertsonak norberaren familia bihurtzen dira.” “Etxean sentiarazi gintuzten beste familia venezuelar batzuk aurkitu genituen.”
- Oztopo emozionalak, migrazio-dolua lantzeko, kudeaketa emozionalerako espazio gisa, zaintzak gainkargatzea eta arrazakeriaren aurrean hausnartzeko eta zaintzeko espazioak. Azken horri buruz, bereziki, formakuntza eta sentsibilizazio guneei buruz ari dira, migratu eta errefuxiatu guztiei gertatzen zaienaz hitz egin ahal izateko. Espazio horiek ez izateak, emozioak adierazteko zailtasuna sortzen du, batez ere seme-alaben aurrean. “Negar egiteari eusten diogu, baina negar egitea hain da ona”.

Sarbide zaila edo nulua duten tokiak:

- **Jatetxeak, txangoak edo familia bidaiak:** hainbat familiak arrazoi ekonomikoengatik parketik haratagoko txangoak ezin dituztela egin adierazi zuten.
- **Tokiko kultur jarduerak (jaiak, kontzertuak, museoak):** gutxi edo ez dute batere parte hartzen, garraioaren kostuaren, hizkuntzaren edo ongi etorriak ez izatearen sentsazioa dela eta.

- **Hezkuntza eta hizkuntza esparruak:** seme-alabak dituzten familientzat bereziki, euskarazko hezkuntza-sistema ingurune zailtzat jotzen da.
- **Esparru administratiboak eta zerbitzu publikoak:** inprimakiak, txandak edo prozedurak ulertzeko zailtasunak. Hizkuntzak eta bitartekaritzarik ezak zaildu egiten dute erakundeekiko harremana.

## Bakardade egoeran dauden gizonak

Hainbat tailer eta eztabaida-saiotan 23 gizonak hartu zuten parte, horietatik 13 helduak ziren (29 eta 50 artean, gutxi gorabehera) eta hamar gaztek (horietako bi familiarekin batera migratu zuten). Gainerakoak bakarrik iritsi ziren Euskadira, batez ere jatorrizko herrialdeetan geratu diren familien baldintza ekonomikoak hobetzeko. Bakardade emozionalak eta afektu sarerik ezak, aisialdi eta denbora libreko dinamikak sortzea ahalbidetzen dutenak, sozializatzeko aukerak baldintzatzen dituzte. Zentzu horretan, ordena patriarkalaren inguruan hausnartu zen; izan ere, horrek zakartasunera eramaten ditu eta sare horiek sortzea zailtzen du. Baldintza horiei beste batzuk gehitu behar zaizkie, ordena patriarkalaren berezko ekoizle hornitzaileen roletik eta arrazakeriatik eratorritakoak, besteak beste, saioan identifikatutako honako oztopo hauek:

- **Ekonomikoak eta laboralak:** lan prekario eta irregularra, denbora falta dakarten lanaldi luzeak. “Hona lan egitera eta lotara gatoz”, diote. “Gastuak kubritzeko lan gehiegi egin behar da.”
- **Sozialak, zuzeneko eta zeharkako diskriminazioa dela medio:** begiradek, tratuak, mesfidantzak eta nazionalitate edo koloreagatiko arrazakeriak osatzen dute eskubide kulturalak ez gozatze arrazoi garrantzitsuenetako bat. Pertsonen iruditerian elkarrekin bizi diren indarkeria sinboliko horiek espazio publikoak bereizten dituzte aisialdiaz gozatzeko, hala nola hondartzak, liburutegiak, tabernak eta abar. “**Helbide bati buruz galdetzen duzu eta eraso egingo bazenie bezala begiratzen dizute.**” “**Melillan zera esan ziguten: ‘hemen ez zaituztegu nahi.’**”
- **Aisialdirako eta atsedenaldirako sarbidea:** beren baldintza eta testuinguru berberengatik atsedean hartzea gaizki ikusia dagoen herrialdeetatik datoz. Ez dira “denbora galtzeko” eskubidearekin sentitzen: “**aisialdia nagikeria dela erakutsi digute.**”

- **Sare falta eta bakardadea:** bakardade maskulino migratzailea bazterketa sozial eta emozionalaren faktore argia da, eta zerikusi zuzena du ordena sozial patriarkalarekin.

**Sarbide zaila edo nulua duten tokiak:**

- **Kultur espazioak (antzokiak, museoak, kultur etxeak):** gizonek leku horiek “bistaz” edo “kanpotik” bakarrik ezagutzen dituztela aipatzen dute, adibidez, Guggenheim museoa.
- **Lanarekin loturarik ez duten aisialdi espazioak:** zaila egiten zaie kultura edo jolas jardueretan parte hartzea, “emankorra ez dela” sentitzen dutelako: “lan egitera eta lo egitera etorri gar hona”.
- **Espazio komunitario mistoak edo tokiko elkarbizitza:** sare sozialak falta dituzte, tokiko familiek partekatzen dituzten espazio publikoetatik kanpo sentitzen dira diskriminazioaren, arrazakeriaren eta hizkuntzaren ondorioz.

## Emakumeak

Tailer eta eztabaida-saioetan 15 emakumek hartu zuten parte, gehienak helduak, hiru izan ezik, gazteak baitziren. Lehenik eta behin, gizonen eta familien sarbide-oztopo berak identifikatu zituzten, baina generoaren inguruko galdera dinamizatzaile batzuk egitean, beste gai batzuk identifikatu zituzten, hala nola funtsean lotzen zaizkien zaintza-lanak. Elkargune horien kontzientziatik, honako oztopo hauek identifikatu ziren:

- **Ekonomikoak:** jateetxetara, bidaietara edo kultur jardueretara ezin joatea, dirurik ez dutelako. Diru-sarreraren zati bat jatorrizko herrialdean dituzten senideentzako da, bai eta haiek harrera-lekuan dituzten oinarrizko gastuak bermatzeko ere. Gainera, etxebizitza eta elikadura gastuak gero eta handiagoak direla diote. “Oraindik ezin izan naiz kontzertuetara joan, ezta antzerkira ere... ez dago dirurik.”
- **Hizkuntza eta komunikazioa:** euskara edo gaztelania azkarra ulertzeko zailtasuna, deserosotasuna hizkuntzaz aldatzen dutenean. “Ulertzen dut euskaraz izatea, baina nik ez dut hitz egiten... oso gogorra da hizkuntza komun bat hitz egiten duzunean eta ulertzen ez duzun batean zuri zuzentzen zaizkizunean.”

- **Diskriminazioa eta arrazakeria:** azalaren kolorearen, azentuaren, nazionalitatearen edo generoaren arabera bereizitako tratua. “Denda batera sartu eta zapatila horiek ordaindu ezin bazenitu bezala begiratzen dizute.”
- **Denbora eta etxeko lanen edo enpleguarekin lotutako gainkarga:** aisialdirako denbora gutxi, eta, gehienek zaintzalanak egiten dituzten arren, ez dute norberaren zaintzarako denborarik. “Astean bi une besterik ez ditut denbora libreerako.” “Goizez, arratsaldez eta gauetz egiten dut lan, ez dut astirik.”.
- **Emozionalak eta psikologikoak:** estresa, antsietatea, depresioa, erruduntasun sentimendua eta isolamendua. “Iritsi nintzenean etxean giltzapetu nintzen depresioak eta estresak jota.” “Estresa diskriminazioaren eta oztopoen ondorioa da.”
- **Kulturalak eta egokitzeak:** talka kulturala, lekuz kanpo sentitzea eta gizarte arauak ez ulertzea edo haien parte ez sentitzea. “Hizkuntzara, janarira edota musikara egokitzea kosta egiten zaigu.”

#### Sarbide zaila duten tokiak:

- **Zinemak, antzokiak eta kontzertuak:** emakumeek kontzertuetara edo jarduera kulturaletara joateko nahia adierazi dute, baina ezinezkoa zaie baliabide faltagatik edota hizkuntza ulertuko ez duten lotsagatik.
- **Jatetxeak eta aisialdirako gune urbanoak:** leku desiragarri baina eskuraezin gisa identifikatutakoak dira. “**Jatetxe batera joan nahiko genuke, baina ez dugu dirurik.**”
- **Jai herrikoiak eta tokiko ekitaldiak:** emakume batzuek joateari muzin egiten diote lekuz kanpo sentitzen direlako edo hizkuntza ulertzen ez dutelako, “**ez dut euskara ulertzen**” - adierazten zuten jai herrikoiei erreferentzia eginez - “**ez naiz jai horien parte sentitzen**”.
- **Kirol guneak edo jarduera fisikoa:** emakumeek gimnasioetan edo jolas-jardueretan izena ematea eragozten dieten denbora mugak eta zaintza lanen gainkargak aipatzen dituzte. Hala ere, parte hartzaileetako batek ere ez du interna gisa lanik egiten, euren lagun askok hala egiten dutela diote, eta, egoera horrek aisialdirako denbora eta baldintzak izateko edozein aukera deuseztatzen dutela adierazten dute.

## Zer egin? Bazterketaren kontrako tresnak

Pertsona migratuen eta errefuxiatuen eskubide kulturalak aitortzeko eta babesteko, ikuspegi integral bat behar da, ekintza **indibidual, kolektibo, herritar, sozial, instituzional eta juridikoak** konbinatzen dituen. Estrategia horien helburua ez da soilik sarbide-oztopoak ezabatzea – ekonomikoak, linguistikoak edo sozialak –, baita bazterkeria eta desberdintasuna eragiten duten **egiturazko baldintzak eraldatzea** ere.

Aurreko ataletan azaldu bezala, abiapuntuko testuingurua, zer gertatzen den eta zergatik gertatzen den, eta **Durango, Oñati, Tolosa, Barakaldo eta Añanako Kuadrillako** tailer komunitarioetan partekatutako hausnarketen osteko hurrengo urratsa, aisialdiaren eta kulturaren esparruan arrazakeriari eta diskriminazioei nola aurre egin deskribatzea da. Jarraian, hainbat arlotako zenbait tresna zerrendatuko ditugu, IAGORAtorioko parte hartzaileek beraiek adierazi dituztenak, eta beren eskubideak baliatzeko eta parte hartu ahal izateko dauden oztopoak gainditzeko balio dezaketenak.

### Tresna indibidualak

Saio hauetan gehien aipatzen den tresna indibidualetako bat **ongizate emozionala zaintzeko eta aisialdi partekatuko errutinak sortzeko beharra** da, lanaren eta bizitza pertsonalaren eta familiarraren arteko oreka sustatuz. Hala ere, horretara iristeko, garrantzitsua da **aisialdiaren nozioa berreraikitzea: norberaren balioa soilik lanaren eta produktibitatearen menpe dagoelako ideia gainditzea**. Haurren kasuan, **denbora eta espazio erabilgarriak aprobetxatzen dituzte**, adibidez, **supermerkatu**ra joatea aisialdiaren parte gisa ulertzen dela aipatu zen, “behar dudana hartzeko” aukera ematen baitie. Emakume gehienek, bestalde, aisialdia eta atsedena eskubide gisa aitortzen dituzte, errurik gabe, ikuspegi feministatik, eta **migraziori lotutako estresari, isolamenduari eta zaintzaren gaitzari aurre egiteko** gune gisa ulertzen dituzte.

Formakuntza eta ikaskuntza autodidakta, pertsonentzat funtsezko estrategia gisa identifikatzen da. Euskara irakatsi eta ikasteko doako espaziorik ez dagoenez, modu indibidualean tresna digitalak erabiltzeko pausua ematen dute, eta liburutegietan historiari buruzko kontsulta-testuak eta udalerriko datu garrantzitsuak bilatzen dituzte integrazioa indartzeko helburuarekin.

Faktore ekonomikoa, lehen aipatu bezala, pertsona helduek gainditu nahi duten beste faktore baldintzatzaile bat da, espazio publikoan doan erabil daitezkeen lekuak identifikatuz, parkeak, esaterako. Haurrek, ekonomikoki guraso edo tutoreen eta senideen menpe daudenez, aldizkako pagarik ez badute, familia errekaduak egiten dituzte edo diru truk erosketez arduratzen dira. Batzuetan, baita neba-arrebek ere, diruz laguntzen dituzte, baina “gauzak trukatzuz”.

Kirola ere estrategia gisa azaltzen da: nahiz eta askok kirola egiteko espazio publikora jotzen duten, garrantzitsua da kirol eta kultur instalazioetarako sarbidea izatea. Haurrek unean uneko erabileragatik ordaintzen dute. Adibidez, udako igerilekuan, bero handia egiten duenean eguneko sarrera ordaintzen dute. Sartzeko modu bat da, txartel edo bazkidetza pase osoa ez izan arren.

## Tresna kolektiboak

Lagunak funtsezko laguntza iturria dira aisialdiaz, kulturaz eta kirolaz gozatzeko. Era berean, pertsona gehienek **laguntza edo babes sareak** eraikitzearen garrantzia baieztatzen dute. Parte hartu zuten haur, gazte eta zenbait heldu euren familiekin dauden arren, beste batzuek migrazio-prozesua bakarrik egiten dute, eta beharrezkoa da harrera-lekuan familia berri bat sortzea. **Etxea** aisialdirako eta denboraz gozatzeko oso espazio garrantzitsua da; “nire etxea zure etxea da”, eta horregatik da garrantzitsua etxebizitzarako sarbidea gozamenerako eta ongizaterako espazio gisa indartzea.

**Kulturarteko familia guneak** (parkeak, tailerrak, jaiak, ibilaldiak) sortzea ere aipatzen da, eta Donostian “Kuadrilla Mundiala” ekimena nabarmentzen da, hainbat auzotako jaietan migratutako pertsonen parte-hartzea eta gozamena sustatzen duena.

<https://irutxulo.hitza.eus/2025/09/12/kuadrilla-mundiala-jaietatik-denontzako-auzoa-eraikitzeko>

Era berean, Euskal Herria 11 Kolore, gaur egun gure jendartean dagoen jatorri-aniztasunaren inguruko eztabaida bultzatzeko sortutako herri-ekimena da. Euskal kultura eta gizarteari dakarkion aberastasunaren egiaztapenetik abiatutzen da ekimena. Esparru akademiko, kultural, sozial eta sindikaletako pertsonak hartu dute eztabaida hori gizarte-mailara eramateko ardura. Euskal Herria 11 Kolorek eragile sozial eta instituzionalek parte hartzeko proiektu

irekia izan nahi du, hainbat jatorritako euskal herritarren arteko topaketa, interakzio eta lankidetzarako guneak bultzatuz, gure aniztasuna ikusaraziz eta elkar ezagutzeko dinamikak bultzatuz, elkarrekiko errespetua eta onarpena ahalbidetuz.

<https://eh11kolore.eus/>

**Familia migratuen eta bertako familien arteko esperientzia-trukea:** “Ongi etorri eskolara” proiektua Gipuzkoako lehen hezkuntzako hainbat ikastetxetan gauzatzen da, eta ikastetxeei laguntza ematean die, eskola eta komunitate inklusibo baterantz doan kulturarteko eredu pedagogikoa abian jartzeko. Horretarako, euskara ikasle guztien aukera-berdintasuna sustatzeko funtsezko elementutzat hartzen dute. Helburu horrekin, “Familia Laguna” programaren bidez, irakasle, ikasle eta, batez ere, familiekin esku-hartzeak egiten dira. Esparru horretan, hurbileko harremanen bidez, gizarte eta hezkuntza arloko akonpainamendua egiten da eta hainbat herrialdetatik migratutako familiak, adin bereko seme-alabak dituzten familia euskaldunekin harremanetan jartzen dira. Horrela, eskolan kulturartekotasuna zeharka lantzen da, auzotik, bertakotik haratago.

<https://www.ongietorrieskolara.org/>

**Maskulinitate zainzaileei eta lotura komunitarioei buruz lan egiten duten gizon migratuen taldeak:** “Munduko Medikiak” (Munduko Medikiak Euskadin) taldeak esparru horretan lan egiten du, hainbat maskulinitateri buruz hausnartzeko, maskulinitate hegemonikoa zalantzan jartzeko eta eredu berdinzaleagoak sustatzeko. Proiektu honek aldaketa soziala eragin nahi du, eta genero identitateari, arrazari eta beste zapalkuntza-ardatz batzuekiko interseksionalitateari buruzko hausnarketa sustatzen du, artea, tailerrak eta hezkuntza-materialak bezalako tresnak erabiliz. Helburu nagusia elkarrekin eraikitzea da eta maskulinitate ez-hegemonikoen eremuan beste ahots batzuk txertatzea, beste ikuspegi kultural batzuetatik abiatutako gizarte-eredu bat eragin eta sustatzeko.

<https://www.calameo.com/read/008052129ba25c6f84e7f>

Duela urte batzuetatik hona, **adierazpen kolektiboko gune** gisa balio duten kirol, musika eta arte-jarduerak ugaritzen ari dira. Hona hemen Bilbon kokatzen diren adibide batzuk: Arrazakeriaren Aurkako Mundialitza, gizarteratzea sustatzeko eta arrazakeriarik gabeko gune bat aldarrikatzeko antolatutako kirol eta kultur

ekitaldia. Futbol eta saskibalo partidak beste jarduera batzuekin konbinatzen ditu, hala nola musika, hitzaldi, bazkari eta merkatuekin, eta kultura desberdinen topagune gisa ospatzen da. Damba Fest-ek, arrazakeriaren aurkako jaialdiak, aniztasuna ikusarazteko eta elkarbizitzarako gune bat sortzeko musika, dantza eta beste diziplina batzuk erabiltzen ditu. “CompARTE Antirracismo” jaialdia, erresistentzia antiarrazista eta feministaren ikur bihurtu da; eta Afrikako Kultur Azoka (AFRICARTE) adibide batzuk besterik ez dira.

<https://www.instagram.com/mundialitoantirracista>

<https://www.instagram.com/dambafestival>

<https://sosracismo.eu/v-edicion-del-festival-comparte-antirracismo-una-jornada-de-musica-arte-y-resistencia-en-atxuri-bilbao/>

<https://afrikartebilbao.com>

**Emakume-taldeak sortzea, topaketa,** konfiantza eta nortasuna berreraikitze gune gisa. Tolosako Andragora bezalako ekimenak nabarmendu nahi ditugu, kafe edo te baten inguruan emakume desberdinak elkartzeko aisialdirako gune bat barne hartzen duena, edo Emakume Migratu Ekintzaileak, ekintzaitzan proposamenak, emplegua eta erabakitasuna sortzeaz arduratzen den Euskadiko lehen elkarte. Oso emaitza onak eman ditu eta bertan parte hartzen dutenak, emakume migratzaileak dira denak. Honek, Bizkaiko bizitza ekonomiko, kultural eta sozialean parte-hartzea eta presentzia sustatzeko asmoa du.

<https://www.andragora.eus/es/cafe-tertulia>

<https://mujeresmigradasemprendedoras.org/>

## Tresna herritarrak

Udalerriko jardueretan (eskolan, gizarte-etxeetan, auzo-elkarteetan) familien parte hartzea sustatzea. Bizilagunak ekimenak –urtero Euskadiko hiru lurralde historikoetan hainbat erakunde eta entitate sozialek antolatzen dutena– udalerrietan bizi diren familia ezberdinen arteko topaketa bultzatzea du, bazkari baten bidez. Familia batek anfitrioi lanak egiten ditu eta beste familia bat gonbidatzen du bere etxera, otordu bat partekatze. Honek jatorriz udalerrikoak direnen eta beste jatorri batzuetako bizilagunen arteko topaketa gune bat sortzen du. Herritar guztiei topaketa eta ospakizunerako guneak eskaintzean, kulturartekotasunaren, aniztasunaren eta komunitate mailan interakzio-espazioak sortzearen aldeko apustua egiten da, bizikidetzat hobetuz, parte-hartzea erraztuz, diskriminazioari

aurea hartuz eta aniztasunaren potentzial osoa aprobetxatuz. Hori guztia herritarren pertzepzioak, jarrerak eta jokabideak alda daitezen sustatzeko.

**Komunitate eta kultur jardueretan modu aktiboan parte hartzea:** horren adibide dira, Araban, udalerrri edo eskualde mailan Kuadrilletan antolatutako bizikidetza-taldeak. Talde horiek aukera ematen dute pertsona migratuen eta bertako bizilagunen arteko espazioak partekatzeko, non hurbiltasunak lotura zehatzak sortzen dituen eta aurreiritziak desmuntatzen dituen, informazioa elkar trukatzu eta batak bestearen gaineko aitortza eginez. Gainera artikulazioa hobetzen da, bai zurrumurruak datu zehatz eta errealekin deuseztatzeko, bai agenda komun bat artikulatzeko, non, besteak beste, taldean espazio publikoetara joateko eta aisialdiarekin lotutako jarduerak antolatzen.

Talde hauek, askotan, kulturartekotasun ikuspegi argia duten jardueretan parte hartzen dute, hala nola Bizilagunak ekimenean. <https://zehar.eus/bizilagunak>

## Gizarte erakundeen eta elkarteen tresnak

Erakunde eta pertsona espezifikoaren arteko laguntza bilatzea da identifikatutako beste tresnetako bat. Save the Children eta Giltzarrri erakundeak aisialdirako, kulturarako eta kirolerako sarbidea errazten duten erakunde gisa aipatzen dira. Giltzarrin, adibidez, familia migratuetako haurrei etxeko lanak egiten laguntzen diete, eta haien zatitza futboleko eta ping-pongeko jolasteko eta elkar topatzeko gunea da. Save the Childrenen kasuan, bertan parte hartzen duten haur eta nerabeek Barakaldoko Gurutzeta auzoan dagoen Haur eta Nerabeentzako Baliabideen Zentroa aipatzen dute. Zentro horrek eskola-laguntza eskaintzen du ikasturtean zehar, eta aisialdirako espazio inklusiboak eskaintzen ditu, komunitatean parte hartzea eta inplikazioa erraztuz. Halaber, erakundeak udaro eskaintzen dituen udaleku urbanoak aipatzen dira, aisialdirako eskubidea eta, oro har, eskubide kulturalak gauzatzeko funtsezko gune gisa.

Pertsona migratuen eta errefuxiatuen erreferenteak eta, beraz, pertsona arrazializatuak aitortzeko espazioak sendotzea ere aipatzen da, bizikidetza eta sareak eraikitzea susta dezaten gizarte-laguntzako egitura gisa. Halaber, lider komunitarioak

formatzeko espazio seguru ez-mistoak lehenestearen eta sustatzearen garrantzia aipatzen da, haien parte-hartze politiko eta kulturala bultzatzeko.

## Tresna instituzionalak

Hurrek, nerabeek eta gazteek eskolako joan-etorriak eta jarduerak aprobetxatzen dituzte: zenbait parte-hartzailek esan zuten hainbat kiroldegitan sartzen direla gorputz-hezkuntzako eta kirol jarduera desberdinen eskolak jasotzeko. Horrek esan nahi du, maiz, urrutira joan behar dutela, baina eskola-kirolaren esparruan kokatzen denez, gastua kubrituta dago. Eskolaz kanpoko jarduerak ere aisialdiaren baitako ekintza gisa ulertzen dituzte, nahiz eta guztiek ez dituzten berdin entretenitzen. Eskolarekin egiten dituzten txango eta irteerak, adibidez, ordainpekoak direnean, ez dira aukera egokiena izaten.

Nabarmentzekoa da politika publikoek funtsezko zeregina izan dezaketela haurren eta nerabeen kultur eskubideak gauzatzeko, zuzenean eurek edo euren senideek migrazio prozesuak bizi izan dituztenean. izan direnean edo beren familietan migrazio-prozesuak izan direnean. Seme-alabak Hazteko Hileko Laguntzak zabaltzeak berariatzko aldear ekar dezake 12 eta 17 urte bitarteko nerabeentzat.

Zentzu honetan, beharrezkoa da aisialdi eta partaidetzako ekintzetan errefuxiatu eta migratzaile guztiak barne hartzen dituzten politikak diseinatzea, eta ez soilik enplegura bideratutakoak. Gainera, eskoletan, kultur eta osasun zentroetan hizkuntza eta kultur irisgarritasuna bermatzea ezinbestekoa da.

“Familiako kultur harrerako” programak sortzea, inguruko gizarte eta kultur bizitza ezagutarazteko. Esaterako, Donostiako Bideberri BHI ikastetxeko Lagunberri programa dugu horren adibide, 2019/2020 ikasturteaz geroztik aktibo dagoena. Lehen fase batean, alfabetatzea eskaintzen da, euskaraz zein gaztelaniaz, jatorri desberdineko ikasleen premiaren arabera, hizkuntza ahalik eta gehien barneratzen lagunduz eta giltzarri diren irakasgaietan lagunduz, hezkuntza arautuan modu ekitatiboan sartzeko aukera izan dezaten. Prozesu osoa familiarekin artikulatuta dago, ikasleak Gipuzkoako hainbat herritatik joaten baitira Donostiara. Programak erakutsi du gazte hauen eskola-arrakasta bermatzeko aukera

dagoela, eta gaur egun, hainbat karrera tekniko eta modulu ikasten ari direla.

**Ongizate emozionala sustatzen duten kulturarteko sozializazio-espazioak sustatzea.** Prozesu gehienak gizarte zibiletik gidatzen badira ere, administrazio publikoak horrelako ekimenak babesteko konpromisoa erakutsi behar du. Horietako bat Santurtziko (Bizkaia) BaoBat kulturarteko boluntarioen elkarte da, non jatorri desberdinetako pertsonak biltzen diren harrera eta bizikidetzat landu, elkartasun emozionala sustatu eta kulturarteko kidegata sentitzeko.

<https://asociacion-baobat.webnode.es/>

Kolore Guztiak elkarteak, bestalde, kulturarteko gizarte bitartekaritzako gelak eta “Elkargune” bat eskaintzen dizkie Donostiako gazte migratzaileei, haien garapen emozional eta soziala indartzeko. Gainera, prestakuntza-tailerrak egiten ditu ikastetxeetan, eta emozioak eta kulturen arteko lotura txiki-txikitatik ezagutzea sustatzen du.

<https://www.sargi.org/entidades/kolore-guztiak/>

**Aniztasunaren, kulturartekotasunaren eta arrazakeriaren aurkako teknikarien prestakuntza,** lehen aipatutako Kolore Guztiak-en kasuan bezala, eskola-eremuan.

## **Estrategia juridikoak**

- Hurrek eta nerabeek hezkuntza eta aisialdia berdintasun baldintzetan jasotzeko duten eskubidea aitortzea.
- Doako aholkularitza juridikoa bermatzea hezkuntza edo kultur diskriminazioko kasuetan. Bai Eraberean Sareak, Eusko Jaurlaritzak bultzatutako tratu-berdintasunerako eta diskriminaziorik ezerako sareak, bai Arartekoak ere, tratu edo jarrera arrazisten diskriminazio egoerak (zuzenekoak edo zeharkakoak) jaso eta, hala badagokio, artatzen dituzte. Eraberean sareak badu salaketa bide bat jokabide horiek jakinarazteko, baina erakundeei eta gizarte-eragileei ere ematen die aholkularitza tratu-berdintasunaren arloan. Arartekoak salaketa bide bat du, tokiko administrazio publikoetako langileek diskriminazio-tratua jaso duten kasuetarako.

<https://www.euskadi.eus/rederaberean>

<https://ararteko.eus/es>

- Familiaren ikuspegia kultur, berdintasun eta migrazio-politika publikoetan txertatzea: Migrazioaren eta Asiloaren Euskal Foroa funtsezko gunea da, kontsulta, informazio eta aholkularitzarako organo kolegiatu plurala dena, gizarteratzean eta etorkinen eskubideak eskuratzean oinarritutako politika aktiboa garatzen laguntzeko helburua duena. Bertan, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoek, unibertsitateek, gobernuz kanpoko erakundeek, elkarteek, sindikatuek eta enpresaburuek parte hartzen dute. Gizarte-erakundeen parte-hartzeak, bai errefuxiatuek edo migratuek osatutakoak, bai haien defentsan eta laguntzan lanean dihardutenek, eragina izan dezake Foroan eta, zehazki, Hezkuntza Batzordean, Herritarren Partaidetza, Kultura eta Sentsibilizazio Batzordean eta Euskara eta Hizkuntza Aniztasunaren Batzordean familia-ikuspegi hori txertatuz.  
<https://www.euskadi.eus/foro-migracion-asilo/>
- Eskubide kulturalak eta parte-hartze sozialerako eskubideak zabaltzea Espainiako eta Euskadiko lege-esparruan.
- Formakuntza eta kultura berdintasun aukera bermatzea, nazionalitatearen edo administrazio-estatusaren araberrako diskriminaziorik gabe.
- Jatorriaren, generoaren edo erlijioaren araberrako diskriminazioa salatzen mekanismoak hedatzea. Eraberean sarea, berriz ere, funtsezkoa da horretarako.

Azkenik, oztopoak gainditu eta migratuek eta errefuxiatuek kultur jardueretan parte har dezaten sustatzeko funtsezkoa izan daitekeen figura bat nabarmendu nahi dugu: udaletako eta probintzietako berdintasun eta kulturartekotasun arloetako arduradunak, beren eginkizunen artean honako hauek susta baititzakete:

- a) Kultur aniztasuna kudeatzeko eskumenetan administrazio osoko langileei prestakuntza ematea.
- b) Herritarrek parte hartzeko guneak sustatzea eta antolatzea, hala nola jai-batzordeak edo artikulazio feministarako guneak, bai eta udalerrri eta probintzietan dauden errefuxiatuekin eta migratuekin bizikidetzeta eta trukea ahalbidetzeko jarduerak ere.
- c) Udal ordenantza eta politiken genero-eraginaren ebaluazioak berrikustea eta egitea, errefuxiatu eta migratuengan genero-diskriminazioak sortzen dituzten soslai edo irizpideak desagerrarazteko.

- d) Errefuxiatuek eta migratuek tokiko, probintziako eta autonomia erkidegoko kultur eskubideak eskuratu eta sustatzeko programa eta zerbitzu espezifikoak diseinatzea, eta herritar guztiek gozatu eta parte hartzeko diseinatutako kultur eskaintzaren baitan eskubide horiek aitortzea.

Zehar-Errefuxiatuekin elkartek, Entretejidas|Sareginak proiektuaren esparruan, gomendioak ematen ditu politika publikoek eta kultur erakundeek migrazio-prozesu bat bizitako pertsonak, zehazki emakumeak, sortutako eta gidatutako narratibak aitor eta babes ditzaten. Prozesuari laguntzeko moduari buruzko aholkuak ematen ditu eta oinarritzko eskubide kulturalak gozatzeko beharrezkoak diren baliabideei eta tresnei buruzko ideiak eman.

<https://entretejidas.zehar.eus>

